



Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa
& Beatriz Fernández (ed.). 2022. Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV) (3. arg.).

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

[Interneten eskuragarri <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?h=eu>].

ISBN: 978-84-1319-456-1.

data: 2024-11-02

ii.5. Egitura iragangaitz datibodunak: *zakidan*, *dakit* (v *zitzaidan*, *zait*)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Egitura iragangaitz datibodunak: *zakidan*, *dakit* (v *zitzaidan*, *zait*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=2&e=18&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, aplikatiboak, datibo ikurra, datibo komunztadura/klitikoak, datiboak, erro alternantzia, iragangaitz datibodunak, P txertaketa

Deskribapena

Indikatibozko aditz forma iragangaitz datibodunak *izan* erroaren gainean eraikitzen dira, datiborik gabekoak bezala. Forma datibodun hauek morfema aplikatibo bat daramate datibo klitikoaren aurretik, forma ditransitiboan gisan. Morfema hau, ordea, ez da morfologikoki bera hizkera guztietan, eta hizkera batzuetan, gainera, orainaldiaren eta lehenaldiaren arteko bereizketa egiten da aplikatiboaren formari dagokionez.

Eredu orokorraren arabera, lehenaldiko forma iragangaitz datibodunak *zitzaidan* bezalakoak dira (1). Bertan litekeena da izan aditzaren erroa bera (-za-) eta i aplikatiboa bereiztea, forma hauetan guztietan *-(t)zai-* agertzen da-eta. Orainaldian ere lekukotzen da morfema hau (2).

(1)	Etorri	zitzaidan
	etor.PTCP	(3ABS).(izan).APPL.1SG.DAT.PST

(2)	Etorri	zait
	etor.PTCP	(3sg.ABS).(izan).APPL.2SG.DAT

Nafarroako zenbait hizkeratan, ordea, iraganeko formetan *-ki* morfema aplikatiboa agertzen da datibo klitikoaren aurretik. Honenbestez, *zitzaidan* bezalako ordez *zakidanen* modukoak erabiltzen dira hizkera hauetan (Zuazo 2013: 73). Forma hauek hizkera eremuan sartu ditugu (3).

(3)	Etorri	zakidan
	etor.PTCP	(3ABS).(izan).APPL.1SG.DAT.PST

Horrez gain, hego-sartaldeko azpi-euskalkian, alegia, Sakanan, *-ki* morfemak hedadura handiagoa dauka, orainaldiko formetan ere agertzen baita (Zuazo 2013: 47). Orainaldian ere *-ki* daukaten hizkerak azpi-hizkera eremuan sartu ditugu (4).

(4)	Ahaztu	dakit
	ahatz.PTCP	(3ABS).(izan).APPL.1SG.DAT

Banaketa dialektala

Zuazoren (2013: 73) esanetan, hizkera ereduko ezaugarri hau (3) euskara nafarrari dagokio, baina ez bere osotasunean, ipar-sartaldea eta Baztan kanpo gelditzen baitira. Azpi-hizkera eredia (4), aldiz, hego-sartaldeko azpi-euskalkian aurki daiteke, Sakanan alegia (Zuazo 2013: 47).

Datu-basearen emaitzak

Guk aztertutako hizkeren artean Erroibarren eta Arbizon baino ez da lekukotzen hizkera eredia (3). Azpi-hizkera eredia (4), berriz, guk aztertutako hizkeren artean Arbizukoan baino ez da lekukotzen.

Eztabaida teorikoa

Orain arte egitura iragangaitz datibodunetarako *izan* erroa eta morfema aplikatiboa proposatu ditugu. Hala izanez gero, *-ki* forma ditransitibo sintetikoetako morfema aplikatiboarekin (euskalaritzan *datibo ikur* bezala ezagutzen denarekin) lotuta egon liteke.

Dena den, hau ez da dagoen ikuspuntu bakarra. Izan ere, Zuazok (2013: 73) *-ki* errotzat dauka. Ikuspuntu honen arabera, txandakatze hau aditz erroaren alternantzia gisa ulertzen da.

Aipamenak

Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.

